

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5548

AGINDUA, 2025eko abenduaren 16koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2026ko ekitaldian Kultura eta Sormen Industrien Berrikuntza Funtsaren KSI Berritzaile+ programarako dirulaguntzak emateko oinarriak ezarri eta deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio arte- eta kultura-jarduerei eta horien sustapen eta hedapenari dagozkien egitekoak eta jardun-arloak. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren barruan eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren bidez, egiteko horiek Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzari esleitzen zaizkio.

Bereziki, Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzari dagokio Euskal Kultura eta Sormen Barrutiaren (BDCC, ingelesez) garapena kudeatzea, EAEn kultura- eta sormen-industrien (aurrerantzean, KSI) sektorearen garapena sustatuko duten ekintzak proposatzea, eragile publiko eta pribatuekin koordinazio- eta lankidetzak-formulak proposatzea, EAEko beste sektore eta ezagutza-arlo batzuekin topaguneen sorrera kudeatzea, kanpoko sareetan harreman-eremuak proposatzea, eta berrikuntza eta lehiaren alorrean EAE aukera-lurralde gisa kokatzeko programa eta/edo proiektuak hautematea.

KSlak, Euskadi Sortzailea izendapenaren bidez, RIS3 Euskadi espezializazio adimenduneko estrategiaren lau aukera-eremuetako bat dira, elikadura osasungarria, eko-berrikuntza eta hiri jasangarriekin batera, eta Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Planaren barruan kokatzen dira (Euskadi 2030 ZTBP); aldi berean, Europa Horizonte esparru-programa berriarekin bat datoz, zeinak zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatzea baitu xede, Euskadi digitalago, berdeago eta inklusiboago baterantzko trantsizioa bizkortzearen. Ildo horretatik, Euskadi Sortzailearen helburua da Euskadiko kultura- eta sormen-sektoreak garatzea, euskal enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES) dagokien lekua izan dezaten.

Euskadi, Europan, berrikuntza handiko eskualdeen multzoan dago. Helburua hazten jarraitzea eta lurraldea berrikuntza arloan Europako eskualde liderra izatea da (RIS adierazlea, Regional Innovation Scoreboard), Euskadi Europako berrikuntza-polo izan dadin, hazkunde ekonomikoari eta ongizateari lagunduz, baita kalitatezko enpleguak sortzeari ere, XIII. legegintzaldiko Gobernu Programako berrikuntzaren arloan Hazkunde eta Ongizate Eredua izeneko 2. ardatzean jasotzen den bezala.

KSlen sektoreak berezko berezitasunak eta idiosinkrasia ditu, talentuan, esperimentazioan eta sormenean, berrikuntzan eta ezagutzaren sorkuntzan oinarrituak, zeinak ezinbestekoak baitira eta etengabe sortzen baitira. Testuinguru horretan, I+G+b delakoak, enpresa-lehiakortasunarekin eta nazioartekotzearekin lotutako beste jarduera batzuekin batera, funtsezko egitekoa du KSlen garapenean.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Contrast II Azterketa egin zuen 2023an («Kultura eta Sormen Sektoreak eta Industriak eta berrikuntza: ekosistemak, tipologiak, neurketa eta inpaktuak»). Bertan KSI arloko 20 ekosistema aztertzen dira nazioarte mailan, eta elementu bereizle gisa nabarmentzen da, KSlen sektorean berrikuntzak, ekonomikoki emaitza adierazgarriak emateaz harago, kanpora begira eragin positibo esanguratsuak sortzen dituela, bereziki, gizarte eta kultura arlokoak. Eta garrantzitsuagoa dena: funtsezko zeregina betetzen dute, inklusi-boagoak eta jasangarriagoak diren gizarteetarantz abiatzeko. Horrek aparteko izaera ematen dio berrikuntzaren balioari KSletan.

Azterketa horren ondorioetan jasotzen den bezala, XXI. mendeko berrikuntza (are gehiago KSlen sektorean) laugarren helizearen ereduaren arabera egituratzen da, gizarte zibila funtsezko eragile gisa txertatuz, industria-ehunaz, akademiak eta administrazioez gain. Partaidetza, komunitatea, inklusioa, portaera-aldaketak eta adimen kolektiboa berrikuntzaren ekosistemako ardatzak dira KSletan. Jasangarritasuna, momentuz, hirugarren postuan kokatzen dela ikusi da, aztertutako berrikuntza kasuen inpaktuei dagokienean. Dena den, larrialdi klimatikoak eta gero eta handiagoak diren desberdintasunek ikuspuntua helize boskoitzaren erudian ipintzea eskatzen dute premiaz, baita merkatuak nagusitasun nabaria duen testuinguruetan ere. Gaur egun, KSlen berrikuntza ez da ulertzen 5 helizeak kontuan hartu gabe.

Era berean, txostenetik ondorioztatzen da, laguntza-ekosistema sendo batek aldi berean jardun behar duela hainbat esparrutan: berrikuntza, inbertsioa, talentua, esportazioa eta enpresa-ehuna. Ildo horretatik, beharrezkoa da KSlen sektorerako berrikuntzari laguntzeko politikak gauzatzeari, enpresa-ehunaren berezitasunak kontuan hartuta (mikroenpresak, finantzaketa lortzeko zailtasunak, trebakuntza-beharrak, sarbide-mekanismoak sinplifikatzea...); eta KSlekin batera diseinatutako politikak, eragina irabaztera bideratuak, non sormen-berrikuntzaren kontzeptua jokoan sartuko litzatekeen, lankidetza gurutzatuko metodoak eta ikerketa teknologikoaren humanizazioa sustatuz.

Bestalde, Innobasqueren 2024ko Prospektiba Txostenean berrikuntzarekin lotutako joera nagusiak aztertzen dira, eta gaikako 5 bloke nabarmentzen dira: Adimen Artifizialaren nonahikotasuna eta praktika jasangarrien premia; lana eta talentua berriz definitzea eta antolamenduaren berrikuntza eta egokitzeko beharra, eta baita zibersegurtasunak eta konputazio kuantikoak aurkeztutako erronka eta aukerak ere. Panorama dinamiko eta ebolutibo horretan, nabarmentzekoa da Adimen Artifizial Sortzailearen eta Jasangarritasunaren zeharkakotasuna, 2023ko txostenarekiko elementu bereizgarri gisa.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Districts of Creativity Network (DC Network) sarearen esparruan Euskadin antolatutako 2024ko Creativity World Forum ekitaldian, AA sortzaileak eduki kultural eta sortzaileen ekoizpenean duen inpaktua ipini zen eztabaidaren muinean. Teknologia hori erabiltzeko eta eratorritako lanak sortzeko erabilitako edukien babesa, jabetza-eskubideak eta titulartasuna bermatzeko premia azpimarratu zen. Era berean, agerian geratu zen adostasuna dagoela KSlek beste sektore batzuk (elkar aberastea) eta gizartea eraldatzeko gaitasuna eta eskumena dutela. Hala ere, administrazio publikoak berrikuntzari laguntzeko sistema berri bat izateko beharra ere egiaztatu zen.

Testuinguru horretan egituratu da Berrikuntza Funtsekin kargurako laguntza-deialdi hau, Eusko Jaurlaritzako sailek euskal kultura- eta sormen-ekosisteman I+G+b dinamizatzeko erabiltzen dituzten partiden tresna osagarri gisa, Euskadi 2030 ZTBPrek eta RIS3 Euskadi estrategiaren hedapena bultzatuz Hori guztia bat dator NBEk 2030. urteari begira finkatutako Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), zeinak Euskadi Basque Country 2030 Agendan sartuta baitaude (bereziki,

Industria, Berrikuntza eta Azpiegituretako 9. GJHari dagokionez, zeinak ezartzen baitu azpiegituretan inbertitzea eta berrikuntza hazkunde eta garapen ekonomikorako funtsezko ardatzak direla).

Halaber, Agindu hau sartuta dago 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, zeina Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko otsailaren 27ko Aginduz onartu baitzen, eta aipatu saileko webgunean argitaratu baitzen.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Agindu honen eranskinean jasotako oinarri arautzaileak onartzea eta ahalmen berritzaile handiko proiektuak garatzen dituzten Euskadiko KSlen sektoreko enpresentzako dirulaguntzen deialdia egitea, 2026-2027 aldirako.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dakioke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Bi kasuetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 16a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.

ERANSKINA

LAGUNTZA-DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da ahalmen berritzaile handiko proiektuak garatzen dituzten EAEko KSlen sektoreko enpresei bideratutako dirulaguntzak arautzea, 2026-2027 aldirako.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Dirulaguntza hauetara, guztira, 900.000 euro bideratuko dira: % 50, 2026. urterako, eta gainerako % 50a, 2027. urterako.

3. artikulua.– Entitate onuradunak eta betekizunak.

1.– Honako baldintzak betetzen dituzten entitateak izan daitezke oinarri hauetako dirulaguntzen onuradun:

a) Autonomoak edo enpresa txiki edo ertainak (ETE) izatea, betiere zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute. Enpresa eta ETE kategoriaren definizioa Europako Batzordearen 2002ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren definizioaren arabera aplikatzen da.

b) Entitateek Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egon beharko dute, Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien sektorea osatzen duten azpisektoreei dagozkien epigrafeetako batean, hots: Arte eszenikoak, Ikusizko arteak, Ikus-entzunezkoak, Edizioa eta baliabide inprimatuak, Musika, Kultura ondarea, Arkitektura, Artisautza, Eduki digitalak, Diseinua, Sormen-gastronomia, Hizkuntzaren industriak, Moda, Publizitatea eta marketina, eta Bideojokoak; baita IKS sektoreko zehar-erakundeak ere, hots: kultura eta sormen arloko bitartekaritza eta/edo aholkularitzako enpresak.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren dagokion epigrafeko altan gutxienez sei hilabeteko antzintasuna agertu beharko da, laguntza eskatu denetik sei hilabete igaro aurretik eratutako enpresen kasuan izan ezik.

c) Enpresa-taldeak. Enpresa bat beste entitate batzuekin lankidetzan aurkeztzen bada, enpresa horrek ordezkari gisa jardungo du, onuradun gisa enpresa-taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko botere nahikoarekin. Entitate eskatzaileak, edozein kasutan, IKSen sektoreko entitatea izan beharko du. Enpresa-taldeko entitate bat ezingo du talde bereko beste entitate batek azpikontratu. Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikulua betez, pertsona fisikoek edo juridikoek –nortasunik gabeko pribatu edo publikoek– osatutako taldeak direnean, eskaeran eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz jaso beharko dira taldeko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak, bai eta bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Nolanahi ere, ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen. Ezin izango da taldea desegin Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideei dagokienez legean aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

2.– Honako hauek ezingo dira entitate onuradun izan oinarri hauen arabera:

a) Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak edo entitateak.

b) Beren kapital sozialean, fundazio-ondarean edo gobernu-, administrazio- edo zuzendaritza-organotan partaidetza handiena edozein administrazio publiko edo instituzionalek, sektore publikoko entitateek, finantza- edo kreditu-entitateek duten entitateak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun eta oso astunengatik administrazio-bidean ebazpen irmo bidez zehatuak izan diren entitateak, neurri zuzentzaile egokiak gauzatu eta zehapena ordaindu arte.

d) Azken hiru urteetan minimis laguntzetan guztira 300.000 eurotik gorako laguntzak jaso dituzten entitateak.

3.– Oinarri hauen babesean ematen diren dirulaguntzak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak ordainduta izatea. Betekizun horiek betetzea ezinbestekoa izango da enpresa onuradun izaera mantentzeko. Beraz, emakida egiterako unean zein ordainketak egitean horiek bete diren egiaztatuko da, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasu-neko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoari jarraikiz.

Deialdi honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du dirulaguntzaren eskatzaile diren enpresek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela, haien oniritzirik behar izan gabe, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat etorritz. Hala ere, enpresa eskatzaileak beren-beregi uko egin ahal izango dio egiaztapen hori egiteari; kasu horretan, dagokion egiaztatzea aurkeztu beharko du.

4.– Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua arabera, ez zaio dirulaguntza, baliabide eta inolako funts publikorik bideratuko, emango edo onartuko, ez zuzenean ez zeharka, LGTBIfobia gauzatzen, bultzatzen edo sustatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikori (izan publikoa, pribatua edo finantzaketa mistokoa), konbertsio-terapiak bultzatzea edo egitea barne.

5.– Pertsona/entitate onuradunak enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa adierazi beharko du, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9. artikuluan ezarritako moduan.

6.– 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatzen zaizen pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publikoko entitateak ez beste guztiek), irabazteko asmoa duten heinean, egiaztatu beharko dute, apartatu honetan xedatzen den bezala egiaztatu ere, oinarri hauen 18 artikuluan aurreikusitako justifikazio-fasean ordainketa-epealdiak betetzen dituztela, lege horretan ezartzen direnak onuradun edo entitate laguntzaile izateko. Enpresa hornitzaileari aldeztatu aurretik kobratzea ahalbidetzen dion edozein finantzaketa baliozkotzat joko da apartatu hau betetzeko, baldin eta haren kostua bezeroaren kontura bada eta ordaintzen ez duenean hornitzaileari errekurtsioa jartzeko aukerarik gabe egiten bada.

7.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoak honela egiaztatuko dira:

a) Organo kudeatzaileak ofizioz egiaztatuko du betekizun hauek betetzen direla:

– Zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutela.

– Alta egoeran agertzen direla Euskadiko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, dagokion epigrafean.

– Egunean dituztela beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu dezake ofizioz egiaztatzea, eta horretarako, kasuan kasuko organo eskudunak emandako administrazio-ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

8.– Laguntza-eskabidea aurkezten denetik bete beharko dira betekizun horiek, eta horiei eutsi beharko zaie harik eta ematen den dirulaguntza likidatzen den arte.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuak eta betekizunak.

1.– Euskadiko KSlen sektorean ahalmen berritzaile handia duten proiektuak diruz lagundu ahal izango dira, betiere trantsizio hirukoitzeko (teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta soziosanitarioa) erronkei aurre egitera bideratuta dauden produktu, zerbitzu edo negozio-prozesu berriak edo nabarmen hobetuak garatzen badituzte, Euskadi digitalagoa, berdeagoa eta inklusiboagoa lortze aldera, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planeko (Euskadi 2030 ZTBP) helburuekin koherentzia mantenduz.

Proposamen batek berrikuntzarako ahalmen handia duela ulertuko da, kasu hauetan:

a) Dagoeneko sendotuta dauden berrikuntza-joerekin (esate baterako, berrikuntza irekia edo gaitasun berriak garatzeko premia) edota hasiberriak direnekin bat datozenean, nagusiki, Adimen Artifizial Sortzailearen eta Jasangarritasunaren inguruan.

b) Trantsizio hirukoitzetik eratorritako erronketako bat, gutxienez, modu sortzaile eta estrategikoan jorratzen badu.

c) Euskadiko KSlen sektorean aldaketa esanguratsuak eta jasangarriak sortzeko gaitasuna duenean, sektorea indartzen, dibertsifikatzen eta mailakatzen lagunduz.

d) Kanpora begirako eragin positiboak sortzen baditu, hau da, ingurunerako onurak badakartza, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasunari begira.

e) Ezagutzaren eragileekin, gizarte zibilarekin, administrazio publikoarekin edo beste sektore ekonomiko batzuekin itun estrategikoak ezartzen dituenean, bereziki 2030 ZTBPKo beste esparru batzuekin gurutzatutako berrikuntza-proiektuetan.

2.– Proposamenek, emaitzen adierazleak ez ezik, adierazle egiaztagarriak gaineratu beharko dituzte, proposamen horiek eraldaketarako duten ahalmena egiaztatzeak (inpaktu-adierazleak).

3.– Izaera berritzailea baloratuko da proposamenak irismen orokorreko berrikuntza bat dakarrenean nahiz Euskadiko lurraldearen testuinguruan berrikuntza adierazgarria dakarrenean. Bi ikuspegiak baliozkotzat eta estrategikotzat jotzen dira eraldaketa bultzatzeari begira.

4.– Ez dira diruz laguntzekoak izango ohiko aldaketak edo aldaketa arruntak, lehendik dauden produktu/zerbitzuetan, prozesuetan edo negozio-ereduetan hobekuntzak ekarri arren.

5.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketei laguntza-eskabidea elektronikoki aurkeztu ondoren ekin beharko zaie, deialdiaren urte naturalaren barnean. Gainera, laguntza-eskabidean proiektua hasteko adierazitako datatik zenbatzen hasita, gehienez, 15 hilabeteko epean ezarri beharko dira eta, edozein kasutan, 2027ko urriaren 1a baino lehen amaitu beharko dira.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

1.– Diruz laguntzekoak izango dira berrikuntza-proiektuari ekiteko garapen eta merkataritza arloan beharrezkoak diren jarduerak. Horien artean daude diruz lagundu daitezkeen gastu hauek:

a) Ikerketa eta Garapen esperimentaleko (I+G) jarduerak.

– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadiko Sareko eragileei zuzendutako azpikontra-tazio-kostuak, baldin eta horretarako direla egiaztatzen bada, edota proiektuko zati baten kanpoko beste kolaborazio zenbait.

– Material aurreratuekin eta biomaterialekin probak eta prototipoak egitearekin lotutako gastuak.

– Ingeniaritza-zerbitzuen kontratazioa.

Gehienez onartutako aurrekontua: 30.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 25).

b) Diseinu-jarduerak eta beste sormen-lan zenbait.

– Elkarren arteko diseinuko edo Design Thinking erako metodologiak txertatzeko aholkulari-tza-zerbitzuak.

Gehienez onartutako aurrekontua: 30.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 25).

c) Marketinarekin edo marka-irudiarekin lotutako jarduerak.

– Berrikuntza-proiektua abiarazteko publizitatea eta komunikazioa.

– Pitchinga egitearekin lotutako gastuak.

Gehienez onartutako aurrekontua: 10.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 10).

d) Berrikuntza nazioartean kokatzeko gastuak. Horien artean daude honako hauek:

– Nazioarteko azoka eta kongresu edo foroetan berrikuntza-proiektuen erakusketak antolatu eta horren logistikarekin arduratzeko gastuak. Kontzeptu honengatik gehienez onar daitezkeen aurrekontua: 4.000 euro.

– Pertsona baten bidaia- eta ostatu-gastuak, proiektuaren proiektzioa bideratzeko beharrezkoak diren ekitaldietan, bilkuretan eta azoketan parte hartzeko. Norberaren ibilgailua edo taxia erabiltzearen ondoriozko dietak, txartelak eta bestelako gastuak ez dira diruz laguntzekoak izango. Kontzeptu honengatik gehienez onar daitezkeen aurrekontua: 4.000 euro.

– Berrikuntza-proiektuaren nazioartekotze-plana kanpoko enpresa baten eskutik lantzeko gastuak.

Berrikuntza nazioartean kokatzeko gehienez onartutako aurrekontua: 20.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 20).

e) Jabetza intelektualarekin eta ziurtagiri eta homologazioekin lotutako jarduerak.

– Jabetza intelektualarekin lotutako kontratuak egiteko zerbitzu juridikoak.

– Aktibo ez-materialak (esate baterako, markak, diseinuak, patenteak, etab.) eskuratu, balioz-kotu edo defendatzeko kostuak.

– Proiektuarekin zerikusia duten ingurumen-ziurtagiriak eskuratzeko kostuak.

Gehienez onartutako aurrekontua: 10.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 15).

f) Talentua:

– Berrikuntza-proiektuarekin lotutako langileei emateko prestakuntzari dagozkion gastuak. Kontzeptu honengatik gehienez onar daitekeen aurrekontua: 8.000 euro.

– Berrikuntza-proiektua ezartzeko kontratazio berriak, nominen eta Gizarte Segurantzako kuoten bidez justifikatuko direnak. Kontzeptu honengatik gehienez onar daitekeen aurrekontua: 10.000 euro.

Talentuarekin lotutako gastuetarako gehienez onartutako aurrekontua: 15.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 20).

g) Teknologia eta ekipamenduak:

– Teknologia edota ekipamendu-ondasunak gaineratzearekin lotutako amortizazio-gastuak, proiekturako erabilitako denboran eta neurrian.

Gehienez onartutako aurrekontua: 10.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 15).

h) Softwarea eta datu-baseak garatzeko jarduerak.

– Softwarea eta irtenbide digitalak garatzeko aholkularitza-gastuak.

– Proiektuarekin zuzenean lotutako softwarea eskuratzea. Ez dira diruz laguntzekoak izango ofimatika-, CRM- eta ERP-lizentziak eskuratzeko eta berritzeko kostuak.

Gehienez onartutako aurrekontua: 10.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 15).

i) Berrikuntza kudeatzeko jarduerak.

– Berrikuntza-proiektuarekin lotutako negozio-eredua zehaztearekin lotutako aholkularitza-gastuak.

– Berrikuntza Kudeatzeko ISO 560001:2024 ziurtagiria ezartzearekin lotutako gastuak.

Gehienez onartutako aurrekontua: 10.000 eurora arte (gehienez, aurrekontuaren % 15).

j) Diruz laguntzeko gastutzat hartuko dira langileen gastuak, betiere proiektuarekin lotuta badaude. Honako hauek onargarriak izango dira:

– Plantillako langileen gastuak, nominekin eta Gizarte Segurantzara egindako ekarpenekin egiaztatzen direnak.

– Autonomoen kasuan, gastuak egozteko, azken ekitaldiko galeren eta irabazien kontuko emaitza izan beharko da kontuan. Proiektuak irauten duen bitartean Gizarte Segurantzari ordaindutako kuotekin eta aurreko ekitaldiko galeren eta irabazien dokumentuarekin justifikatuko dira.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontu onartuaren % 10era arteko dirulaguntza eman ahal izango da langile-gastuetarako, 6.000 euroko mugarekin, entitate onuradun indibidualaren kasuan; eta % 20era arte, 12.000 euroko mugarekin, enpresa-taldeen kasuan.

k) Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira jarduerari egotz dakizkiokeen zeharkako kostuak. Horiek kalkulatzeko, diruz lagundu daitekeen aurrekontu onartuko langileen gastuen gainean % 15eko portzentajea aplikatuko da, eta ez da justifikazio gehigarririk beharko.

h) Langileen gastuak eta talentuarekin lotutakoak metagarriak dira.

2.– Gastuak egozteko, aurreko apartatuan ezarritako atalaseak izango dira kontuan, oinarri hauen II. eranskineko taulan islatzen den eran.

Gastu mota bakoitzerako ezarritako gehieneko ehunekoak kontzeptuko muga indibidualak dira. Horien helburua da partida bakoitzak onartutako aurrekontuaren barruan proportzionaltasun jakin bat izan dezala berrmatzea. Diruz lagundu daitekeen guztizko zenbatekoa proiektuaren aurrekontu orokorraren arabera kalkulatu da, eta adierazitako ehunekoen batura ez da dirulaguntzaren gehieneko ehunekora (% 80) iritsi behar (6. artikuluan aurreikusia).

3.– Gastu hauek ez dira inolaz ere diruz lagunduko:

a) BEZ kengarriaren zenbatekoa, entitate onuradunak eta, hala badagokio, enpresa-taldean parte hartzen duten entitateak zerga horren aitortzea egiteko obligazioa dutenean. Horrelakoetan, gastu gisa egotz daitekeen zenbatekoa egiaztagirien zerga-oinarriari dagokiona izango da.

b) Lotutako enpresen artean egindako gastuak.

c) Dirulaguntza kudeatzeko aholkularitza-gastuak.

d) Hardware-gastuak; horien artean, honako hauek daude, besteak beste: informatika-ekipamenduak, periferikoak, mugikorak. Era berean, ez da diruz laguntzekoa izango ikus-entzunezko materiala, hala nola argazki-kamerak eta bideokamerak.

4.– Kostu horiek Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren mende daude, eta, beraz, betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, ezinbestekoak direnak eta deialdi honetan eta emakidaren ebazpenean edo hartan izan daitezkeen aldaketetan ezarritako epearen barruan egiten direnak.

b) Diruz lagundu daitezkeen gastuen erosketa-kostua ezingo da, inola ere, merkatuko balioa baino handiagoa izan.

c) Egindako gastutzat hartuko da justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindutakoa.

5.– DAELeko 31.1 artikuluan, DLOko 29. artikuluan eta DLOaren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 68. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onuradunak kontratatatu edo azpikontratatatu egiten duela ulertuko da hirugarrenekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xedeko jarduera osoa edo zati bat gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo gelditzen dira entitate onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko egin behar dituen gastuak. Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 80a iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jardueretarako hirugarrenak azpikontratatze edo kontratatze, aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatu beharko dira.

Azpikontratazioak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, aldeztu aurreko baimena beharko da eta kontratua idatziz egin beharko da, DAELeko 31.3 artikuluan adierazten den eran.

6.– Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen kontratu txikietarako ezarritako zenbatekotik gorakoa denean, pertsona edo entitate onuradunak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatatu aurretik, salbu

eta obra, zerbitzu edo ondasun horien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago halakorik egiteko edo emateko entitate nahikorik.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa egiteko (egiaztagirian edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dira), efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori memoria batean.

7.– Ez dira aintzat hartuko Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen ez dituzten fakturak, ezta ordainketa egiaz egiteko data likidazio-eskaeratik harago atzeratuta dutenak ere.

8.– Inbertsio-gastuak justifikatzeko, diruz lagundu ahal izango da proiektuaren egikaritze-epeari dagokion aktiboaren amortizazioaren zati proportzionala, kontabilitateko araudietan ezarritakoari jarraikiz.

9.– Gastu hautagarriek zentzuzkoak izan behar dute, eta organo kudeatzaileak horiek mugatzeko aukera izango du.

6. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa eta mugak.

1.– Proiektu bat hautatu eta diruz lagundu ahal izateko, gutxienez 20.000 euroko aurrekontua izan beharko du. Gehienez, gastu hautagarrien % 80 lagundu ahal izango da diruz, diruz lagundu daitezkeen gastuei buruzko 5. artikuluan eta II. eranskinean jasotzen diren gastuen aldetiko mugak kontuan izanik, eta hautatutako proiektu bakoitzerako gehieneko zenbatekoa 60.000 eurokoa izango da.

7. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Oinarri hauetan deskribatzen den dirulaguntzen programa Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831(EB) Erregelamenduan ezarritako «minimis» arauen mende geratuko da (EBAO 2831 L, 2023ko abenduaren 15ekoa). Horrenbestez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak beharrezkoak diren mekanismoak abiaraziko ditu pertsona edo entitate onuradun bakar batek ere ez dezan segidako edozein hiru zerga-ekitalditan, guztira, 300.000 eurotik gorako dirulaguntzarik jaso.

2.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak, oro har, bateragarriak dira edozein entitate publiko zein pribatuk xede berberaz emandako bestelako laguntzekin. Bateragarritasun hori proiektu bererako emandako laguntzetara zein jarduketa ezberdinetara hedatzen da, betiere, honako baldintza hauek betez:

a) Laguntzak diruz lagundu daitezkeen kostu ezberdinetarako direnean, ez da metaketa aldetiko mugarik izango.

b) Laguntzak diruz lagundu daitezkeen kostu bererako direnean osorik edo zati batean, metatzeko aukera izango da soilik laguntzaren gehieneko langa edo gehienez baimendutako zenbatekoa gainditzen ez bada, oinarri hauetako 5. eta 6. artikuluetan eta araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera.

Edozein kasutan, entitate onuradunek proiektu bererako eskatutako edo onartutako laguntza guztiak aitortu beharko dituzte, gardentasuna bermatzeko eta finantzaketa bikoitza ekiditeko.

3.– Hala ere, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak proiektu bera edo horren zati bat burutzeko emandako edozein dirulaguntza izendun eta zuzenekorekin, edo dirulaguntzei buruzko aginduen arabera onartutako beste edozein dirulaguntzarekin.

8. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko otsailaren 16an amaituko da, 23:59etan.

2.– Eskabide-inprimakia eta izapideari buruzko azalpenak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragai: <https://www.euskadi.eus/servicios/1041206>

3.– Entitate eskatzailearen, haren legezko ordezkariaren eta entitatearen barruko harremanetarako pertsonaren identifikazio-datuak jaso beharko ditu laguntza-eskabideak. Halaber, proiektuari buruzko datu espezifikoak jasoko dira: izenburua, hasiera-data eta amaiera-data.

4.– Eskabideak elektronikoki aurkeztu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren euskadi.eus egoitza elektronikora sartuta, apartatu honetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako erregistro elektronikoa zehaztutako helbideen bidez. Eskabidearen ondorengo izapidetak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira (<https://euskadi.eus/nirekarpeta>); bertan daude eskuragai bide elektronikoz izapidetzeko zehaztapenak.

5.– Identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutakoak, helbide honetan daude eskuragai: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

6.– Izapidetze elektronikoa ordezkari diharduen eta aldeztu aurretik Eusko Jaurlaritzaren Ahalordetzearen Erregistro elektronikoa inskribatuta dagoen pertsona baten bidez egin ahal izango da (<https://www.euskadi.eus/ordezkarien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>); ordezkari gisa egiaztatu beharko da prozeduran.

7.– Enpresa eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko zeinahi hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta hari atxikitako egiaztagiria. Halaber, eskaeraren ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, enpresa eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

8.– Eskabideak aurkezteak adierazten du espresuki eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarriak definitzen dituzten baldintzak.

9.– Eskatzaile bakoitzak eskabide bat aurkeztu ahal izango du gehienez.

10.– Aurkeztutako dokumentu elektronikoek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa jaisteko moduan dauden ereduak erabiliko dira, eta ereduaren formatu berean aurkeztuko dira.

b) Gainerako dokumentazioa Pdf formatuan aurkeztuko da.

9. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkezteko dokumentazioa.

1.– Enpresa eskatzaileari buruzko dokumentazioa.

a) Erantzukizunpeko adierazpena, entitateko legezko ordezkariak sinatua, eskabidean eta IV. eranskinean gaineratzen den eredu normalizatuko edukiari jarraikiz.

Horretaz gain, honako informazio hau aurkeztu beharko da:

– Aurreko hiru zerga-ekitalditan emandako minimis laguntzen zerrenda, emate-data, organismoa, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazita.

– Entitate publiko edo pribatuengandik proiektu bererako eskatu edo jaso dituen laguntzen zerrenda, honako hauek adierazita: eskabidearen edo, laguntza eman bazaio, emakidaren data; erakundea; programa; eta laguntzaren zenbatekoa.

b) Pertsona edo entitatea alta egoeran egon beharko da Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren Hirugarrenen Erregistroan. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetuko da dagokion zerbitzuaren bidez, zeina egoitza elektronikoa ere eskuragarri baitago, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

c) Egiatzko Titulartasunaren Akta, Merkataritza Erregistroan izena emanda dauden pertsona juridikoen kasuan.

d) Administrazio honetako erregistroetan inskribatutako enpresek eskabidean adierazi beharko dute zein erregistrotan dauden inskribatuta, eta ez da beharrezkoa izango horren egiaztagiririk aurkeztea.

e) Administrazio honetakoak ez diren erregistroetan inskribatutako enpresek honako hauek egiaztatu beharko dituzte: entitatearen legezko eraketa, haren izaera juridikoaren arabera; ordezkariaren identitatea; gainera, ordezkaritza-ahalmen nahikoa izatea justifikatu egin beharko du, eraketa-eskrituraren eta estatutuen bidez; eta kasuan kasuko erregistro publikoetan inskribatuta egotea ere egiaztatu egin beharko du.

2.– Proiektuarekin lotutako dokumentazioa:

a) Proposamenaren memoria teknikoa eta ekonomikoa (I. eranskina), gehienez 15 orrialde izango dituen, aurkibidea, azala eta eranskinak kontuan izan gabe. Letra-tamaina: Arial 11. Formatua: Pdf.

Balorazio batzordeak memoriaren edukia ebaluatuko du, oinarri hauen 14. artikuluan jasotzen diren eta III. eranskinean zehazten diren balorazio-irizpideak oinarritzat hartuta. Memorian honako atal hauek garatu beharko dira:

1.– Proiektuaren berrikuntza-maila.

1.1.– Izaera berritzailea.

1.2.– Berrikuntza gurutzatua eta eskalagarritasuna.

2.– Proiektua deialdiarekin bat etortzea.

2.1.– Euskadiko trantsizio hirukoitzean duen inpaktua.

2.2.– Lurraldean espero den inpaktua.

3.– Proiektuaren izaera estrategikoa.

3.1.– Espero diren emaitzak.

3.2.– Enpresaren indarra.

3.3.– Talentuarekiko konpromisoa.

4.– Proiektuaren kudeaketa.

4.1.– Proposatutako metodologiaren kalitatea.

4.2.– Bideragarritasun ekonomikoa.

4.3.– Talde arduraduna.

4.4.– Ingurumenaren eta naturaren ikuspegia diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan.

4.5.– Komunikazioa eta hedapena.

5.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa txertatzea.

5.1.– Proiektuaren diseinuan, garapenean eta hedapenean genero-ikuspegia gaineratzea.

5.2.– Entitatearen ibilbidea, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.

5.3.– Berdintasun arloko ziurtagiriak edo bereizgarri ofizialak egiaztatzea.

6.– Euskararen erabilera.

6.1.– Proiektua diseinatzeko eta garatzeko faseetan euskara txertatzea.

6.2.– Hedapenerako eta komunikaziorako jardueretan euskara erabiltzea.

6.3.– Proiektuak duen inpaktua, euskarak esparru digitalean eta, bereziki, AA sistemetan duen presentzia sustatzeari begira.

6.4.– Euskarari dagokionez ziurtagiri ofizial bat egiaztatzea.

b) Egoitza elektronikoan deskargatu daitekeen memoria ekonomikoa, Excel txantilo modura, proiektuaren aurrekontua jasotzekoa, banakatuta eta partiden arabera zehaztua. Proiektuaren plan ekonomikoak jarraibide hauek bete beharko ditu:

i) Aurreikusitako gastuen eta sarreraren arteko aurrekontu orekatua aurkeztu beharko da.

ii) Gastuen atalean, diruz lagundu daitezkeen gastuen kostua banakatuko da, deialdi honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Proiektuari dagozkion gastuak oinarri hauetako 4. artikuluan adierazitako epean egikaritu beharko dira.

iii) Diru-sarreraren atalean deialdi honetan eskatutako zenbatekoa sartuko da, eta proiektua garatzeko aurreikusitako diru-sarrera publiko zein pribatu guztien jatorria banakatuko da.

c) Proiektuko lanak egiteko kontratatzeko enpresa hornitzaileek egindako eskaintzaren edo eskaintzen kopia. Eskaintza guztiak aurkeztu beharko dira, eta lankidetzaren irismena zehaztasunez adierazi beharko da.

Proiektuaren memoria, gastuen egitura eta kontratatzeko enpresa hornitzaileek proiektuko lanak egiteko igorritako eskaintza/k ezingo dira aldatu behin eskaera aurkeztu ondoren, hargatik eragotzi gabe 19. artikuluan ezarritakoa.

3.– Nolanahi ere, organo kudeatzaileak aukera izango du aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta tramitatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen edozein agiri edo informazio eskatzeko entitate eskatzaileei, eta adieraziko da arau honetan berariaz aurreikusi ez diren gaie-tan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko dela. Dokumentazio hori, hain justu, dokumentazioa eskatzen den unean zehazten den epean helarazi beharko da.

10. artikulua.– Aurkeztutako eskabideko akatsak zuzentzea.

Eskabidea izapidetzea onartzeko behar den dokumenturen bat falta bada edo dokumentu horie-tan zerbait gaizki dagoela ikusten bada, edo balioesteko aurkeztutako dokumentazioan akatsak aurkitzen badira, hamar egun balioduneko epea emango zaio enpresa interesdunari akatsa zuzen-tzeko edo dagozkion dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela (ebazpen baten bidez emango zaio horren berri).

11. artikulua.– Laguntzen kudeaketa.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrie-tako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen kudeaketa-zereginak betetzea.

12. artikulua.– Dirulaguntzak emateko eta zenbatekoak zehazteko prozedura.

1.– Laguntza hauek norgehiagoka araubidearen bidez emango dira, DAELeko 19.1 artikuluekin bat etorritik, objektibotasunaren, gardentasunaren, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta publizitatearen printzipioen arabera. Laguntza emateko, ezinbestekoa izango da kreditu nahiko eta egokia egotea.

2.– Baldin eta enpresa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan oinarri arautzaileetako 5. artikulua-aren arabera diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak jasotzen badira, kendu egingo dira, onartutako guztizko aurrekontua zenbatekoa izango den zehazteko, eta hori izango da dirulagun-tzaren zenbatekoa zehazteko oinarria.

3.– Esleipen-prozedura puntuazio altuena lortu duen proiektuarekin hasiko da, 14. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuta eta lehentasun-ordenari jarraituz. Dirulaguntza bakoitza-ren behin betiko zenbatekoak ez ditu inoiz gaindituko oinarri hauetako 6. artikuluan ezarritako mugak. Kalkulatutako zenbatekoak muga horiek gainditzen baditu, emaitza gutxituko da, muga guztiak errespetatzen dituen zenbatekorik altuena lortu arte. Deskribatutako prozesua errepikatu egingo da harik eta hautatutako proiektu eta jarduera guztiei erantzun arte, edo deialdiari esleitu-tako zuzkidura ekonomikoa agortu arte, 2. artikuluan jasotzen denez.

4.– Laguntza jaso dezaketen proiektuetan azkena ezin bada gehieneko zenbatekoarekin diruz lagundu zuzkidura ekonomiko nahikorik ez dagoelako, dirulaguntza emango da soilik baldin eta esleitu daitekeen zenbateko ekonomikoak proiektuaren bideragarritasuna bermatzen badu hurrengo artikuluan arautzen den Balorazio Batzordearen iritziz.

13. artikulua.– Balorazio Batzordea eta haren eginkizunak.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da, per-sona hauekin osatua:

a) Batzordeburua: Ana López Asensio, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Sustat-zeko eta Kultura eta Sormen Industrietako zuzendaria. Ez badago, Batzordeko kiderik zaharrenak ordezkatzeko du.

b) Batzordekideak (aztertzeke irizpideekin lotutako 5 aditu-profesional):

– Gotzon Bernaola Ariño, Innobasque – Berrikuntzaren Euskal Agentziako Enpresa Berrikuntza-ren koordinatzaile nagusia. Ez badago, Goizalde Atxutegi Rodriguezek ordezkatu du, Innobasque – Berrikuntzaren Euskal Agentziako Enpresa Berrikuntzaren Proiektuetako koordinatzaileak.

– Itziar Vidorreta Herran, BDCC arloko arduraduna. Ez badago, Sandra Barrio Campok ordezkatu du, BDCC arloko arduradunak.

– Marisa Luisa Arriola Nieto, BIC Gipuzkoa Berrilango zuzendari-gerentea. Ez badago, Ainhoa Unamuno Aramburuk ordezkatu du.

– Sabin Goitia Goienetxea, BEAZ Bizkaia-ko Ekintzailletza zuzendaria. Ez badago, Aintzane Larrabeiti San Romanek ordezkatu du.

Imanol Cuetara Camiruaga, SPRIko Ekintzailletza arduraduna. Ez badago, Carmen Sanchez Martinezek ordezkatu du.

– Batzordeko idazkari modura jardungo du, hitzarekin baina botorik gabe, Elena Lascurain Mugicak (Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzako teknikaria), eta ez badago, Itziar Redondo Dominguezek ordezkatu du.

Era berean, balorazio-batzordearen bileretara bertaratu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, aztertu beharreko gaien inguruan jakintza espezifikoak duten pertsonak, presidenteak onartuz gero.

3.– Balorazio Batzordeko kideak izendatzerakoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

4.– Balorazio Batzordeak, ezarritako esleipen-irizpideak aplikatuz, txosten bat egingo du, eta bertan jasoko du zer dirulaguntza ematea proposatzen duen, eta honako hauek zehaztuko ditu: onuradun modura proposatutako eskabideak egin dituztenen izen-abizenak, balorazio-fasean lortutako puntuazioa eta dirulaguntzaren xede izango den jarduketak; halaber, zein eskabide ukatzea proposatu den azalduko du, ukatzeko arrazoiak adierazita. Halaber, onartu ez diren eskabideak zein diren adieraziko da.

Gainera, DLOEko 63. artikuluan jasotzen den eran, emakidaren ebazpenean jasoko da onuradun izateko oinarri arautzaileetan ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, deialdian zehaztutako gehieneko kreditu-zenbatekoa gainditzeagatik onetsi ez diren eskabide guztien zerrenda ordenatua, eskabide horietako bakoitzari deialdian aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera eman zaion puntuazioa adierazita. Kasu honetan, onuradunen batek dirulaguntzari muzin egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak, beste deialdirik egin beharrik gabe, erabakiko du puntuazioaren arabera hurrengoa den eskatzaileari –edo eskatzaileei– dirulaguntza ematea, betiere ezetsitako eskabideetako bati gutxienez erantzuteko adina kreditu libratu bada, onuradunen batek uko egin ondoren. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epe luzaezinean dirulaguntzaren proposamena ontzat eman dezaten. Behin eskatzaileak edo eskatzaileek proposamena onartuta, administrazio-organok dirulaguntza esleitzeko egintza aginduko du, eta horren berri emango du, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta erregelamendu honetan ezarritako eran.

5.– Balorazio Batzordeak, beharrezko ikusten duenean aurkeztutako eskabideak egoki ebaluatze aldera, behar adina azalpen eskatu ahal izango dizkie enpresa eskatzaileei.

14. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

1.– Dirulaguntzak onuradun izateko betekizunak bete izana egiaztatu duten enpresei emango zaizkie, betiere, jarraian zehazten diren sei balorazio-irizpideekin bat etorritz: 1) Proiektuaren berrikuntza-maila (30 puntu, gehienez); 2) Proiektuak zer neurritan egiten duen bat deialdiarekin (20 puntu, gehienez); 3) Proiektuaren izaera estrategikoa (25 puntu, gehienez); 4) Proiektuaren kudeaketa (15 puntu, gehienez); 5) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa txertatzea (5 puntu, gehienez); eta 6) Euskararen erabilera (5 puntu, gehienez).

2.– Irizpide horien arabera, guztira gehienez 100 puntu lortu daitezke; baztertu egingo dira, eta ezingo dira laguntza hauen pertsona edo entitate onuradun izan 1 apartatuan, hots, proiektuaren berrikuntza-mailari buruzkoan, 20 puntu gainditzen ez dituzten eta, artikulua honetan ezarritako baremoaren arabera, guztira gutxienez 65 puntu lortzen ez dituzten proiektuak.

3.– Irizpide bakoitzaren puntuazioa lortzeko berau osatzen duten azpi-irizpide ezberdinetan eskuratutako puntuazioa batu behar da. Batuketaren ondoren irizpide bakoitzari esleitutako gehieneko puntuazioa gaindituz gero, irizpide bakoitzerako ezarritako gehieneko muga aplikatuko da. Azpi-irizpideak ebaluatzeko, horiek osatzen dituzten elementu guztiak aintzatetsiko dira batera, horien arteko koherentzia eta oreka balioetsiz.

4.– Jarraian, irizpideak zehazten dira, horien azpi-irizpideekin eta puntuazioekin batera. Hala ere, oinarri hauen III. eranskinean balorazio-sistema jasotzen da, eta deskribatutako irizpideen haztapenak adierazten dituen taula bat eransten da.

1. irizpidea: Proiektuaren berrikuntza-maila (30 puntu, gehienez). Proiektuaren berritasun-maila baloratuko da; produktu/zerbitzu/prozesu berria sortu beharko du, edo aurretiaz dagoenarekin alderatuz hobekuntza esanguratsua ekarri beharko du. Proiektuak dakarren balio-proposamena, erabilgarritasuna eta bereizgarritasuna kontuan izango dira. Gainera, lankidetzak-ikuspegia barne hartzen duen, eta eskalagarria ote den aztertuko da.

1.1.– Izaera berritzailea (20 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=5, Nahikoa=10, Ona=15, Bikaina=20).

– Berrikuntza-proposamenaren deskribapen arrazoitua, proposamenak produktu, zerbitzu edo prozesu berria dakarrela edo aurretiaz dagoena nabarmen hobetzen duela erakustekoa.

– Hautemandako premiaren edo abagunearen argudioa.

– Proiektuak jorratzen duen garapen- edo ezagutza-mailaren egungo egoera (State of the art) eta proposamenaren egokitasuna.

– Berrikuntzarekin lotuta espero den balio-ekarpena, erabilgarritasuna eta bereizgarritasuna justifikatzeko arrazoiak.

– Berrikuntza Euskadira mugatzen denean, entitate eskatzaileak berariaz justifikatu beharko du beste leku batzuetan dagoeneko martxan den berrikuntza zertan datzan, Euskadin sartzeak zergatik dakarren aurrerapauso esanguratsua eta zer eragin positibo espero diren sektorean.

– Dagoeneko sendotuta dauden berrikuntza-joerekin (esate baterako, berrikuntza irekia edo gaitasun berriak garatzeko premia) edota hasiberriak direnekin bat etortzea, nagusiki, Adimen Artifizial Sortzailearen eta Jasangarritasunaren inguruan.

1.2.– Berrikuntza gurutzatua eta eskalagarritasuna (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10). Proiektuak:

- Lankidetza-ikuspegia du eta eragileen aniztasuna bultzatzen du. Horrek proiektuari esker espero diren onuren inpaktua handiagoa izatea dakar.
- Beste ingurune batera egokitu daitekeela edo bertan errepikatu daitekeela erakusten du, izan ere, beste sektore, lurralde, bezero edo erabiltzaile batzuetara iristeko aukera dakar.
- Eskalatzeko edo nazioartean kokatzeko ahalmena du.

2. irizpidea: Proiektua zer neurritan datorren bat deialdiarekin (20 puntu, gehienez). Berrikuntza-proiektuak deialdiaren helburuekin eta espero den inpaktuarekin duen koherentzia baloratuko dira.

2.1.– Euskadiko trantsizio hirukoitzean duen inpaktua (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Proiektuak modu sortzaile eta estrategikoan jorratzen du trantsizio hirukoitzetik (teknologiko-digitala, energetiko-klmatikoa eta soziosanitarioa) eratorritako erronketako bat gutxienez, 2030 ZTBP planaren eta RIS3 estrategiaren helburuekin bat etorriz.
- Erantzuna eman nahi zaion gai edo arazoaren garrantzia.
- Proiektuak RIS3 sektoreekin lankidetza bultzatzen du (hiri jasangarriak, eko-berrikuntza, elikadura osasuntsua, osasun pertsonalizatua, energia garbiagoak edo industria adimenduna).

2.2.– Lurraldean hurrengo alderdiei dagokienez espero den inpaktua (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Proiektuak kanpora begirako eragin positiboak sortzen ditu, hau da, ingurunerako onurak, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasunari begira.
- Proiektuak Euskadiko KSlen sektorean lehiakortasuna hobetzen laguntzen du.
- Proiektuak lurralde-kohesioa ahalbidetzen du, funtsezko eragileen arteko lankidetza bultzatzen baitu.
- Proiektuari esker ingurunean eta sektorean gertatu diren egiturazko aldaketak edo eraldaketak neurtzeko aukera ematen duten inpaktu-adierazleak ditu.

3. irizpidea: Proiektuaren izaera estrategikoa (25 puntu, gehienez). Proiektuaren helburuen eta espero diren emaitzen arteko koherentzia baloratuko da, eta horiekin batera adierazle zenbakarriak gaineratu beharko dira. Halaber, kontuan izango da proiektua zer neurritan datorren bat enpresaren berrikuntzaren estrategiarekin, berrikuntza-proiektuak gauzatzeari esker enpresan espero den sendotasuna, eta enplegua eta gaikuntza sortzeari begira talentuarekiko duen konpromisoa.

3.1.– Espero diren emaitzak (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Proiektuko helburuen eta espero diren emaitzen arteko koherentzia.
- Emaitzen adierazle zenbakarriak.

3.2.– Enpresaren sendotasuna (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

– Zer neurritan datorren bat enpresaren berrikuntza-estrategiarekin eta misio eta helburuekin.

– Inpaktua, enpresen produktibitatean eta lehiakortasunean.

3.3.– Enpresak talentuarekiko duen konpromisoa (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10). Proiektuak honako hauetan laguntzen du:

– Kontratazio berriak.

– Langileak gaitzea eta prestatzea.

4. irizpidea: Proiektuaren kudeaketa (15 puntu, gehienez). Proposatutako metodologiaren kalitatea eta proiektuko helburuak lortzeko bideratutako baliabideak balioetsiko dira. Horretarako, kontuan izango dira: lantalde arduradunaren egokitasuna (irismena, gaitasunak eta osaera), bideragarritasun ekonomikoa, proiektuko helburuen harira aurreikusitako atazak (azpikontratatuak direnak barne), horien iraupena, entregagaien kalitatea, ingurumen-ikuspegi txertatzea, komunikazio eta hedapenerako estrategia.

4.1.– Proposatutako metodologiaren kalitatea (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

– Aurreikusitako atazak, horien iraupena eta kudeatzeko modua.

– Prozesuan erabiliko diren tresnak, eta horren justifikazioa.

– Entregagaien garrantzia.

4.2.– Bideragarritasun ekonomikoa (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

– Aurrekontu osoaren justifikazioa.

– Langileen kostuen justifikazioa.

– Azpikontratatzeko premiaren arrazoia.

– Laguntzaren eragin pizgarria.

– Beste finantzaketa-iturri batzuk.

4.3.– Lantalde arduraduna (8 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=5, Bikaina=8).

– Eginkizunen definizioa: zuzendaritza, koordinazioa, kudeaketa.

– Profilak proiektuko helburuetara zer neurritan egokitzen diren, eta horien osaera.

4.4.– Euskadiko ondare naturalaren kontserbazioa (8 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=5, Bikaina=8).

– Ingurumen- eta natura-ikuspegi txertatuta dago proiektuaren diseinuan, kudeaketan eta ebaluazio-sisteman, Euskadiko ondare naturalaren kontserbazioa bultzatu eta ingurumen-helburuak kaltetzea ekidite aldera, DAELeko 7.4 artikuluan jasotzen den eran.

4.5.– Komunikazioa eta hedapena (8 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=5, Bikaina=8).

- Esperotako helburuen eta zehaztutako jardueren arteko koherentzia.
- Komunikaziorako bide berriak irekitzeko publiko objektibo eta potentzialaren irismena.
- Emaizten hedapena eta irismena.

5. irizpidea: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa txertatzea (5 puntu, gehienez). Entitateak emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez duen ibilbidea, proiektuaren diseinuan, garapenean eta hedapenean genero-ikuspegia gaineratzea eta berdintasun arloko ziurtagiriak edo bereizgarri ofizialak egiaztatzea balioetsiko da.

5.1.– Proiektuaren diseinuan, garapenean eta hedapenean genero-ikuspegia gaineratzea (3 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez = 0, Nahikoa= puntu 1 eta Bikaina=3).

5.2.– Erakundearen ibilbidea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan (balizko puntuazioa: 0= ez du ibilbide erakusgarri bat justifikatzen, 2= bai, ibilbide erakusgarri bat justifikatzen du).

5.3.– Berdintasun arloko ziurtagiriak edo bereizgarri ofizialak egiaztatzea (puntu bat emango da berdintasun arloan ziurtagiri ofizial bat edo gehiago egiaztatzeagatik).

6. irizpidea: Euskararen erabilera (5 puntu, gehienez). Proiektuaren diseinuan, garapenean eta hedapenean euskara txertatzea balioetsiko da, eta baita euskararen presentzia ingurune digitalean –eta, zehazki, Adimen Artifizialeko sistemetan– indartzeko proiektuak duen eragina ere.

6.1.– Proiektua diseinatzeko eta garatzeko faseetan euskara txertatzea (3 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez = 0, Nahikoa= puntu 1 eta Bikaina=3).

6.2.– Euskararen erabilera hedapenerako eta komunikaziorako jardueretan (2 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez = 0; proiektuak euskararen erabilera orekatua bermatzen du sustapen eta hedapen jardueretan = 2).

6.3.– Proiektuak duen inpaktua euskarak esparru digitalean –eta, bereziki, AA sistemetan– duen presentzia sustatzeari begira (2 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: 0= ez du euskara bultzatzen ingurune digitalean; proiektuak ingurune digitalean euskarak presentzia izan dezan laguntzen du = 2).

6.4.– Euskararen arloko ziurtagiri ofizial bat egiaztatzea (puntu bat emango da euskararen arloan ziurtagiri ofizial bat edo gehiago egiaztatzeagatik).

15. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Balorazio Batzordeak txosten bat egingo du, ematea proposatutako dirulaguntzak jasoz. Organo kudeatzaileak, espedienteak eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak ematearen inguruan behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta azken horrek Kulturako sailburuordeari bideratuko dio.

2.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie enpresa interesdunei. Jakinarazpen hori gora-behera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpen horien edukia. Lehenik egindako jakinarazpenarena hartuko da jakinarazpen-datatzat. Ebazpena elektronikoki jakinaraziko

da, «Nire karpeta» aplikazioaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

3.– Sei hilabetekoa izango da prozedura ebazteko eta ebazpena interesdunei jakinarazteko gehieneko epea, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; epe hori igarota, ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntza-eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute enpresa interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a artikuluan xedatutako ondorioetarako.

4.– Lehenengo puntuan aipatutako ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurrean, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat etorriz.

5.– Onuradun izateko, pertsona edo entitate eskatzaileak dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izan beharko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoaren arabera.

16. artikulua.– Entitate onuradunaren betebeharrak.

1.– Dirulaguntzak jasotzen dituzten enpresa onuradunek betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza behin betiko onartzeko Kulturako sailburuordeak emandako ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean enpresa onuradunek beren-beregi uko egiten ez badiote dirulaguntzari, onartu egin dela ulertuko da.

b) Diruz lagundutako proiektua deialdira aurkeztu den baldintzetan gauzatzea. Enpresa onuradunak behartuta daude laguntza ematea eragin duen jarduera egikaritzera, eta ezingo da dirulaguntza ekarri zuen xedearen edo helburuaren funtsean eragina duen aldaketarik egin. Organo kudeatzaileari laguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintzaren aldaketaren berri eman beharko zaio berehala.

c) Nazioko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratu badira eta laguntza horiek helburu bera badute, horren berri ematea dirulaguntza eman duen organoari.

d) Dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat denean, merkataritza-eragiketek eragindako gastuak, diruz lagundu daitezkeen gastuak badira, aplikatzekoa zaion arloko araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira, edo, halakorik ezean, Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

e) Halaber, enpresa onuradunek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

f) Gainera, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Zehazki, dirulaguntzen xedeari buruzko fiskalizazioa

egiteko zeregina betetze aldera, eta laguntzei buruzko publizitate egokia emate aldera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, eskatzen dion informazio guztia helarazteari buruzkoak. Ildo horretatik, pertsona edo entitate onuradunek proiektuaren informazio, dokumentazio edo zabalkunde guztian (inprimatutako formatuan, digitalean edo ikus-entzunezkoan) laguntza hori jaso dutela adierazi beharko dute berariaz eta ikusteko moduan, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak berak emandako logoa ere sartuta.

17. artikulua.– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Laguntza eskatzen duen enpresa ez badago erregistratuta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edo bertako banku-datuak aldatu nahi baditu, ordainketa jaso ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako hirugarren interesdunaren alta-inprimakia aurkeztu beharko du eskabidearekin batera edo prozeduraren beste fase batean, helbide honetan ezarritako ereduari jarraikiz: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa>

2.– Bi alditan ordainduko dira oinarri hauen kargura esleitutako dirulaguntzak, jarraian adierazten diren baldintzetan:

a) Dirulaguntzaren zenbatekoaren % 50, esleipen-ebazpena eman ondoren ordainduko da, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera hamabost eguneko epea igarota, beren-beregi uko egin ez bada.

b) Gainerako % 50a hurrengo artikuluan (Dirulaguntzaren justifikazioa) eskatzen den egiaztagarria aurkeztu ondoren eta Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzak hori ebaluatu eta oniritzia eman ondoren ordainduko da.

3.– Egindako gastu hautagarria laguntza emateko ebazpenean onartutako aurrekontua baino baxuagoa bada, proportzionalki doitu da.

4.– Laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoari kendu egingo zaizkio, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) atxikipenak eta konturako ordainketak, zergaren araudia aplikatuz legozkiokeenak.

5.– Onuradun izateko, pertsona edo entitate eskatzaileak dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izan beharko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoaren arabera.

18. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Proiektuaren justifikazioa 2027ko azaroaren 1a baino lehen egingo da, eta proiektua eta jarduerak egikaritu izana eta onartutako aurrekontu osoari dagozkion gastuak jasoko ditu.

2.– Justifikazioarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Jardueren memoria, dirulaguntza emateko oinarritzat hartu zen proiektua bete eta garatu dela adieraztekoa. Formatua: gehienez 15 orrialde izango ditu, aurkibidea, azala eta eranskinak kontuan izan gabe. Letra-tamaina: Arial 11. Formatua: Pdf.

Eskaera-faseko jardueren memorian ezartzen diren atal berberak jaso beharko ditu, oinarri hauen 9.2 artikuluan eta I. eranskinean jasotzen den eran. Gainera, egindako jarduerak eta eskuratutako emaitzak adieraziko dira, eta baita horiek egitean izandako gorabeherak ere. Jarduera egin izana egiaztatzeko behar diren elementuak aurkeztuko dira.

Era berean, memoriak jaso beharko du diruz lagundutako proiektuek 4. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako helburuak lortzen zer neurritan lagundu duten, eta bertan oinarri hauen 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla aipatu beharko da.

Proiektuaren garapenean egiten den aldaketa oro jardueren memorian adierazi beharko da. Aldaketak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan jasotzen diren betekizunak bete beharko ditu, eta idatziz eskatu beharko da gauzatu aurretik, eta sekula ez proiektuaren egikaritze-epea amaitzeko hilabete geratzen denean, eta organo emaileak baimenduta. Memoriari aldaketa eskatzeko eskabidea eta aldaketa baimentzeko ebazpena erantsi beharko zaizkio.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa (Euskadi.eus helbidean eskaintzen den Excel txantilo batean), honako hauek jasotzen dituen:

- Egikaritutako aurrekontua, ahalik eta gehien banakatuta, onartutako aurrekontua oinarritzat hartuz egindako gastu, inbertsio eta diru-sarrera guztiak jasota. Besteak beste, entitate onuradunaren behin betiko ekarpena eta beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek egindako ekarpenak jaso beharko dira, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

- Jardueraren gastu edota inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda sailkatu bat, alderdi hauek zehazten dituen: hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data.

- Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotako fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan antzeko froga-balioa duten dokumentuak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak eta, hala badagokio, epea egiaztatzen duen dokumentazioa. Dokumentuak fitxategi bakarrean sartu beharko dira, eta aipatutako gastuen zerrendan ezarritako hurrenkera mantendu beharko da. Ez da onartuko txartelen bidez justifikatzea.

- Egindako ordainketen justifikazioa, onartutako aurrekontu osoaren gainean.

c) Diruz lagundutako jarduera eta proiektua hedatzeko eskuratutako emaitzak laburbiltzen dituen bideoa, euskaraz eta gaztelaniaz.

d) Beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek xede eta helburu berarekin egindako ekarpenen erantzukizunpeko adierazpena, zenbatekoa eta jatorria adierazita. Enpresa onuradunak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako dirulaguntzaz gain bestelakorik jasoko ez balu, beste dirulaguntza batzuen Adierazpenen Eranskin hori ere erantsi beharko da.

3.– Ezaugarri hauek izan behar dituzte aurkezten diren dokumentu elektronikoek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan jaisteko moduan dauden ereduak erabiliko dira, eta ereduaren formatu berean aurkeztuko dira.

b) Gainerako dokumentazioa Pdf formatuan aurkeztuko da.

c) Bideoa mp4 formatuan aurkeztuko da, eta gehienez, 5 minutu iraungo ditu.

19. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere dirulaguntza- ren helburua bete dela ulertzen bada eta oinarri hauen 3. artikuluan entitate onuraduna izateko ezartzen diren betekizunak betetzen badira–, eta hala badagokio, beste entitate publiko zein pribatuetatik beste laguntzarik jaso bada, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Ondorio horietarako, Kulturako sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena egingo du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokitzekoa.

20 artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketak.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.1 artikularekin bat etorritik, jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketak bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte edo zordunak itzulketaren ordainketa egiten duen egunera arte –lehenagokoa bada– aplikatzekoak diren berandutze-interesak eskatuko dira, honako kasu hauetan:

a) Justifikatzeko betebeharra betetzen ez denean edo lege horretan eta, hala badagokio, dirulaguntzaren oinarrietan ezarritako moduan justifikatzen ez denean.

b) Dirulaguntza baldintzak bete gabe edo baldintzak faltsutuz eskuratzen denean edo hura eskuratzeko galaraziko luketen baldintzak ezkutatuak eskuratzen denean.

c) Dirulaguntzaren helburua, jardura edo proiektua betetzen ez denean edo dirulaguntzaren bidez hartu behar den jokabidea hartzen ez denean.

d) Dirulaguntza emateagatik ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.

e) 12.5.d, 14.c eta 42. artikuluek ezartzen dituzten kontrol-jarduketari erresistentzia, aitzakiak edo oztopoak jartzen zaizkienean edo kontrol horiei uko egiten zaienean.

f) 27. artikuluan jasotzen diren publizitate-neurriak hartzeko betebeharra betetzen ez denean.

g) Dirulaguntza bakoitzaren oinarrietan aurreikusitako gainerako kasuetan.

h) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107tik 109ra arteko artikuluetan ezarritakoaren arabera, itzulketak egiteko premia dakarren erabaki bat hartzen denean.

i) Enpresa-deslokalizazioa deklaritzen denean, lege horren 51. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Itzulketak egiteko prozedura Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40 artikuluan ezarritakoa izango da.

21. artikulua.– Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa.

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendurako honako jarduerara gaineratuko dira: Kulturaren eta sormenaren esparrura zuzendutako laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritza.

Helburua: Kulturaren eta sormenaren sektorerako bideratutako laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: Interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko tratamendu beharrezkoa.

Hartzaileak: Arlo honetan eskumena duten administrazioak.

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk erabiltzeko ere.

Informazio gehigarria: Gure webgunean kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/024300-capa2-eu.shtml>

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Prozedurari dagokionez oinarrietan aurreikusten ez den orotarako, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

I. ERANSKINA

MEMORIAREN EDUKIA ETA FORMATU ALDETIKO BETEKIZUNAK ESKAERA-FASEAN
(OINARRIETAKO 9.2 ARTIKULUA)

Proposamenaren memoria teknikoa eta ekonomikoa, gehienez 15 orrialde izango dituen, aurkibidea, azala eta eranskinak kontuan izan gabe. Letra-tamaina: Arial 11. Formatua: Pdf.

Balorazio batzordeak memoriaren edukia ebaluatuko du, oinarri hauen 14. artikuluan jasotzen diren eta eranskin honetan garatzen diren balorazio-irizpideak oinarritzat hartuta. Memorian honako atal hauek garatu beharko dira:

- 1.– Proiektuaren berrikuntza-maila.
 - 1.1.– Izaera berritzailea.
 - 1.2.– Berrikuntza gurutzatua eta eskalagarritasuna.
- 2.– Proiektua deialdiarekin bat etortzea.
 - 2.1.– Euskadiko trantsizio hirukoitzean duen inpaktua.
 - 2.2.– Lurraldean espero den inpaktua.
- 3.– Proiektuaren izaera estrategikoa.
 - 3.1.– Espero diren emaitzak.
 - 3.2.– Enpresaren indarra.
 - 3.3.– Talentuarekiko konpromisoa.
- 4.– Proiektuaren kudeaketa.
 - 4.1.– Proposatutako metodologiaren kalitatea.
 - 4.2.– Bideragarritasun ekonomikoa.
 - 4.3.– Talde arduraduna.
 - 4.4.– Ingurumenaren eta naturaren ikuspegia diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan.
 - 4.5.– Komunikazioa eta hedapena.
- 5.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa txertatzea.
 - 5.1.– Proiektuaren diseinuan, garapenean eta hedapenean genero-ikuspegia gaineratzea.
 - 5.2.– Entitatearen ibilbidea, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.
 - 5.3.– Berdintasun arloko ziurtagiriak edo bereizgarri ofizialak egiaztatzea.
- 6.– Euskararen erabilera.
 - 6.1.– Proiektua diseinatzeko eta garatzeko faseetan euskara txertatzea.
 - 6.2.– Hedapenerako eta komunikaziorako jardueretan euskara erabiltzea.
 - 6.3.– Proiektuak duen inpaktua, euskarak esparru digitalean eta, bereziki, AA sistemetan duen presentzia sustatzeari begira.
 - 6.4.– Euskarari dagokionez ziurtagiri ofizial bat egiaztatzea.

Jardueren memoriaren edukia justifikazio-fasean (oinarrien 18.2 artikulua):

Memoria teknikoa eta ekonomikoa justifikazio-fasean. Formatua: gehienez 15 orrialde izango ditu, aurkibidea, azala eta eranskinak kontuan izan gabe. Letra-tamaina: Arial 11. Formatua: Pdf.

Jardueren memorian dirulaguntza emateko oinarritzat hartu zen proiektua bete eta garatu dela islatu beharko da. Hau da, eskaera-faseko jardueren memorian ezarritako atal berdinak izan beharko ditu, oinarri hauen 9.2 artikuluan eta eranskin honetako aurreko atalean jasotzen denarekin bat etorritz. Gainera, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira, baita horiek egitean izandako gorabeherak ere. Jarduera egin izana egiaztatzeko behar diren elementuak aurkeztuko dira.

Era berean, memoriak jaso beharko du diruz lagundutako proiektuek 4. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako helburuak lortzen zer neurritan lagundu duten, eta bertan oinarri hauen 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla aipatu beharko da.

Proiektuaren garapenean egiten den aldaketa oro jardueren memorian adierazi beharko da. Aldaketak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan jasotzen diren betekizunak bete beharko ditu, eta idatziz eskatu beharko da gauzatu aurretik, eta sekula ez proiektuaren egikaritze-epea amaitzeko hilabete geratzen denean, eta organo emaileak baimenduta. Memoriari aldaketa eskatzeko eskabidea eta aldaketa baimentzeko ebazpena erantsi beharko zaizkio-

II. ERANSKINA

EKINTZA MOTAREN ARABERA DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENENKO AURREKONTUA

Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak		Onartutako gehieneko aurrekontua	
		euro	%
a)	Ikerketa eta Garapen esperimentaleko (I+G) jarduerak. - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadiko Sareko eragileei zuzendutako azpikontratazio-kostuak, baldin eta horretarako direla egiaztatzen bada, edota proiektuko zati baten kanpoko beste kolaborazio zenbait. - Material aurreratuekin eta biomaterialekin probak eta prototipoak egitearekin lotutako gastuak. - Ingeniaritza-zerbitzuen kontratazioa.	30.000	% 25
b)	Diseinu-jarduerak eta beste sormen-lan zenbait. - Elkarren arteko diseinuko edo <i>Design Thinking</i> erako metodologiak txertatzeko aholkularitza-zerbitzuak.	30.000	% 25
c)	Marketinarekin edo marka-irudiarekin lotutako jarduerak. - Berrikuntza-proiektua abiarazteko publizitatea eta komunikazioa. - <i>Pitching</i>a egitearekin lotutako gastuak.	10.000	% 10
d)	Nazioarteko posizionamendua - Nazioarteko azoka eta kongresuetan berrikuntza-proiektuen erakusketak antolatu eta horren logistikarekin arduratzeko gastuak. - Pertsona baten bidaia- eta ostatu-gastuak, ekitaldietan, bilkuretan eta azoketan parte hartzeko. - Berrikuntza-proiektuaren nazioartekotze-plana kanpoko enpresa baten eskutik lantzeko gastuak.	20.000 4.000 4.000	% 20
e)	Jabetza intelektual eta ziurtagiriak - Jabetza intelektualarekin lotutako kontratuak egiteko zerbitzu juridikoak. - Aktibo ez-materialak (esate baterako, markak, diseinuak, patenteak, etab.) eskuratu, baliozkotu edo defendatzeko kostuak. - Proiektuarekin zerikusia duten ingurumen-ziurtagiriak eskuratzeko kostuak.	10.000	% 15
f)	Talentua - Berrikuntza-proiektuarekin lotutako langileei emateko prestakuntzari dagozkion gastuak. - Berrikuntza-proiektua ezartzeko kontratazio berriak, nominen eta Gizarte Segurantzako kuoten bidez justifikatuko direnak.	15.000 8.000 10.000	% 20
g)	Teknologia eta ekipamenduak Teknologia edota ekipamendu-ondasunak gaineratzearekin lotutako amortizazio-gastuak, proiekturako erabilitako denboran eta neurrian.	10.000	% 15
h)	Softwarea eta datu-baseak garatzeko jarduerak. - Softwarea eta irtenbide digitalak garatzeko aholkularitza-gastuak. - Proiektuarekin zuzenean lotutako softwarea eskuratzea.	10.000	% 15
i)	Berrikuntzaren kudeaketa - Berrikuntza-proiektuarekin lotutako negozio-eredua zehaztearekin lotutako aholkularitza-gastuak. - Berrikuntza Kudeatzeko ISO 560001:2024 ziurtagiria ezartzearekin lotutako gastuak.	10.000	% 15
j)	Langileen gastuak, onuradun motaren arabera. Bai:	6.000-12.000	
	- indibiduala	6.000	% 10
	- multzokatuta	12.000	% 20

Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak		Onartutako gehieneko aurrekontua	
		euro	%
k)	Langileen gastuen % 15aren gaineko zeharkako kostuak, onuradun motaren arabera. Bai:	900-1.800	% 15
	- indibiduala	900	
	- multzokatuta	1.800	
Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa		60.000	% 80

Gastu mota bakoitzerako ezarritako gehieneko ehunekoak kontzeptuko muga indibidualak dira. Horien helburua da partida bakoitzak onartutako aurrekontuaren barruan proportzionaltasun jakin bat izan dezala bermatzea. Diruz lagundu daitekeen guztizko zenbatekoa proiektuaren aurrekontu orokorraren arabera kalkulatu da, eta adierazitako ehunekoen batura ez da dirulaguntzaren gehieneko ehunekora (% 80) iritsi behar (6. artikuluan aurreikusia).

Proiektu bat hautatu eta diruz lagundu ahal izateko, gutxienez 20.000 euroko aurrekontua izan beharko du. Gehienez, gastu hautagarrien % 80 lagundu ahal izango da diruz, diruz lagundu daitezkeen gastuei buruzko 5. artikuluan jasotzen diren gastuen aldetiko mugak kontuan izanik, eta hautatutako proiektu bakoitzera bideratzeko gehieneko zenbatekoa 60.000 eurokoa izango da (oinarrien 6. artikulua).

III. ERANSKINA

PROIEKTUAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK ETA HAZTAPEN-FAKTOREAK

Haztapen-taula

1. irizpidea: Proiektuaren berrikuntza-maila	30
2. irizpidea: Proiektua deialdiarekin bat etortzea	20
3. irizpidea: Proiektuaren izaera estrategikoa	25
4. irizpidea: Proiektuaren kudeaketa	15
5. irizpidea: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa txertatzea	5
6. irizpidea: Euskararen erabilera	5
Gehienez lor daitekeen puntuazioa	100

Guztira gehienez 100 puntu lor daitezke; baztertu egingo dira, eta ezingo dira laguntza hauen onuradun izan 1 atalean, proiektuaren berrikuntza-mailari buruzkoan, 20 puntu baino gutxiago erdiesten dituzten eta, oinarrien 14. artikuluan ezarritako balorazio-baremoaren arabera, guztira gutxienez 65 puntu lortzen ez dituzten proiektuak.

Irizpide bakoitzaren puntuazioa lortzeko berau osatzen duten azpi-irizpide ezberdinetan eskuratutako puntuazioa batu behar da. Batuketaren ondoren irizpide bakoitzari esleitutako gehieneko puntuazioa gaindituz gero, irizpide bakoitzerako ezarritako gehieneko muga aplikatuko da. Azpi-irizpideak ebaluatzeko, horiek osatzen dituzten elementu guztiak aintzatetsiko dira batera, horien arteko koherentzia eta oreka balioetsiz.

Irizpideak:

1. irizpidea: Proiektuaren berrikuntza-maila (30 puntu, gehienez). Proiektuaren berritasun-maila baloratuko da; produktu/zerbitzu/prozesu berria sortu beharko du, edo aurretiaz dagoenarekin alderatuz hobekuntza esanguratsua ekarri beharko du. Proiektuak dakarren balio-proposamena, erabilgarritasuna eta bereizgarritasuna kontuan izango dira. Gainera, lankidetzak-ikuspegia barne hartzen duen, eta eskalagarria ote den aztertuko da.

1.1.– Izaera berritzailea (20 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=5, Nahikoa=10, Ona=15, Bikaina=20).

– Berrikuntza-proposamenaren deskribapen arrazoitua, proposamenak produktu, zerbitzu edo prozesu berria dakarrela edo aurretiaz dagoena nabarmen hobetzen duela erakustekoa.

– Hautemandako premiaren edo abagunearen argudioa.

– Proiektuak jorratzen duen garapen- edo ezagutza-mailaren egungo egoera (State of the art) eta proposamenaren egokitasuna.

– Berrikuntzarekin lotuta espero den balio-ekarpena, erabilgarritasuna eta bereizgarritasuna justifikatzeko arrazoiak.

– Berrikuntza Euskadira mugatzen denean, entitate eskatzaileak berariaz justifikatu beharko du beste leku batzuetan dagoeneko martxan den berrikuntza zertan datzan, Euskadin sartzeak zergatik dakarren aurrerapauso esanguratsua eta zer eragin positibo espero diren sektorean.

– Dagoeneko sendotuta dauden berrikuntza-joerekin (esate baterako, berrikuntza irekia edo gaitasun berriak garatzeko premia) edota hasiberriak direnekin bat etortzea, nagusiki, Adimen Artifizial Sortzailearen eta Jasangarritasunaren inguruan.

1.2.– Berrikuntza gurutzatua eta eskalagarritasuna (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10). Proiektuak:

- Lankidetza-ikuspegia du eta eragileen aniztasuna bultzatzen du. Horrek proiektuari esker espero diren onuren inpaktua handiagoa izatea dakar.

- Beste ingurune batera egokitu daitekeela edo bertan errepikatu daitekeela erakusten du, izan ere, beste sektore, lurralde, bezero edo erabiltzaile batzuetara iristeko aukera dakar.

- Eskalatzeko edo nazioartean kokatzeko ahalmena du.

2. irizpidea: Proiektua zer neurritan datorren bat deialdiarekin (20 puntu, gehienez). Berrikuntza-proiektuak deialdiaren helburuekin eta espero den inpaktuarekin duen koherentzia baloratuko dira.

2.1.– Euskadiko trantsizio hirukoitzean duen inpaktua (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Proiektuak modu sortzaile eta estrategikoan jorratzen du trantsizio hirukoitzetik (teknologiko-digitala, energetiko-klmatikoa eta soziosanitarioa) eratorritako erronketako bat gutxienez, 2030 ZTBP planaren eta RIS3 estrategiaren helburuekin bat etorritz.

- Erantzuna eman nahi zaion gai edo arazoaren garrantzia.

Proiektuak RIS3 sektoreekin lankidetza bultzatzen du (hiri jasangarriak, eko-berrikuntza, elikadura osasuntsua, osasun pertsonalizatua, energia garbiagoak edo industria adimenduna).

2.2.– Lurraldean hurrengo alderdiei dagokienez espero den inpaktua (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Proiektuak kanpora begirako eragin positiboak sortzen ditu, hau da, ingurunerako onurak, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasunari begira.

- Proiektuak Euskadiko KSlen sektorean lehiakortasuna hobetzen laguntzen du.

- Proiektuak lurralde-kohesioa ahalbidetzen du, funtsezko eragileen arteko lankidetza bultzatzen baitu.

- Proiektuari esker ingurunean eta sektorean gertatu diren egiturazko aldaketak edo eraldaketak neurtzeko aukera ematen duten inpaktu-adierazleak ditu.

3. irizpidea: Proiektuaren izaera estrategikoa (25 puntu, gehienez). Proiektuaren helburuen eta espero diren emaitzen arteko koherentzia baloratuko da, eta horiekin batera adierazle zenbakarriak gaineratu beharko dira. Halaber, kontuan izango da proiektua zer neurritan datorren bat enpresaren berrikuntzaren estrategiarekin, berrikuntza-proiektuak gauzatzeari esker enpresan espero den sendotasuna, eta enplegua eta gaikuntza sortzeari begira talentuarekiko duen konpromisoa.

3.1.– Espero diren emaitzak (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Proiektuko helburuen eta espero diren emaitzen arteko koherentzia.

- Emaitza zenbakarrien adierazleak.

3.2.– Enpresaren sendotasuna (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Zer neurritan datorren bat enpresaren berrikuntza-estrategiarekin eta misio eta helburuekin.

- Enpresaren ekoizpenean eta lehiakortasunean duen eragina.

3.3.– Enpresak talentuarekiko duen konpromisoa (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10). Proiektuak honako hauetan laguntzen du:

- Kontratazio berriak.
- Langileen gaikuntza eta prestakuntza.

4. irizpidea: Proiektuaren kudeaketa (15 puntu, gehienez). Proposatutako metodologiaren kalitatea eta proiektuko helburuak lortzeko bideratutako baliabideak balioetsiko dira. Horretarako, kontuan izango dira: lantalde arduradunaren egokitasuna (irismena, gaitasunak eta osaera), bideragarritasun ekonomikoa, proiektuko helburuen harira aurreikusitako atazak (azpikontratatuak direnak barne), horien iraupena, entregagaien kalitatea, ingurumen-ikuspegia txertatzea, komunikazio eta hedapenerako estrategia.

4.1.– Proposatutako metodologiaren kalitatea (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Aurreikusitako atazak, horien iraupena eta kudeatzeko modua.
- Prozesuan erabiliko diren tresnak, eta horren justifikazioa.
- Entregagaien garrantzia.

4.2.– Bideragarritasun ekonomikoa (10 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=6, Bikaina=10).

- Aurrekontu osoaren justifikazioa.
- Langileen kostuen gaineko justifikazioa.
- Azpikontratatzeko premiaren arrazoia.
- Laguntzaren eragin pizgarria.
- Beste finantzaketa-iturri batzuk.

4.3.– Lantalde arduraduna (8 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=5, Bikaina=8).

- Eginkizunen definizioa: zuzendaritza, koordinazioa, kudeaketa.
- Profilak proiektuko helburuetara zer neurritan egokitzen diren, eta horien osaera.

4.4.– Euskadiko ondare naturalaren kontserbazioa (8 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=5, Bikaina=8).

– Ingurumen- eta natura-ikuspegia txertatuta dago proiektuaren diseinuan, kudeaketan eta ebaluazio-sisteman, Euskadiko ondare naturalaren kontserbazioa bultzatu eta ingurumen-helburuak kaltetzea ekidite aldera, DAELeko 7.4 artikuluan jasotzen den eran.

4.5.– Komunikazioa eta hedapena (8 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez=0, Eskasa=2, Nahikoa=5, Bikaina=8).

- Esperotako helburuen eta zehaztutako jardueren arteko koherentzia.
- Komunikaziorako bide berriak irekitzeko publiko objektibo eta potentzialaren irismena.
- Eraitzen eta irismenaren hedapena.

5. irizpidea: e) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa txertatzea (5 puntu, gehienez). Entitateak emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez duen ibilbidea, proiektuaren diseinuan, garapenean eta hedapenean genero-ikuspegia gaineratzea eta berdintasun arloko ziurtagiriak edo bereizgarri ofizialak egiaztatzea balioetsiko da.

5.1.– Proiektuaren diseinuan, garapenean eta hedapenean genero-ikuspegia gaineratzea (3 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez = 0, Nahikoa= puntu 1 eta Bikaina=3).

5.2.– Erakundearen ibilbidea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan (balizko puntuazioa: 0= ez du ibilbide erakusgarri bat justifikatzen, 2= bai, ibilbide erakusgarri bat justifikatzen du).

5.3.– Berdintasun arloko ziurtagiriak edo bereizgarri ofizialak egiaztatzea (puntu bat emango da berdintasun arloan ziurtagiri ofizial bat edo gehiago egiaztatzeagatik).

6. irizpidea: Euskararen erabilera (5 puntu, gehienez). Proiektuaren diseinuan, garapenean eta hedapenean euskara txertatzea balioetsiko da, eta baita euskararen presentzia ingurune digitalean – eta, zehazki, Adimen Artifizialeko sistemetan– indartzeko proiektuak duen eragina ere.

6.1.– Proiektua diseinatzeko eta garatzeko faseetan euskara txertatzea (3 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez = 0, Nahikoa= puntu 1 eta Bikaina=3).

6.2.– Euskararen erabilera hedapenerako eta komunikaziorako jardueretan (2 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: Batere ez = 0; proiektuak euskararen erabilera orekatua bermatzen du sustapen eta hedapen jardueretan = 2).

6.3.– Proiektuak duen inpaktua euskarak esparru digitalean –eta, bereziki, AA sistemetan– duen presentzia sustatzeari begira (2 puntu, gehienez, honako haztapena kontuan izanik: 0= ez du euskara bultzatzen ingurune digitalean; proiektuak ingurune digitalean euskarak presentzia izan dezan laguntzen du = 2).

Euskararen arloko ziurtagiri ofizial bat egiaztatzea (puntu bat emango da euskararen arloan ziurtagiri ofizial bat edo gehiago egiaztatzeagatik).

IV. ERANSKINA

LEGEZKO DEBEKUREN BATEAN EZ EGOTEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

xxxxxxxxxxk, [Nire izenean] / [Ordezkatzen dudan Entitatearen izenean], nire erantzukizunpean Adierazten dut bete egiten ditudala Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan laguntzaren onuradun izateko ezartzen diren betekizunak, eta ez nagoela hemen zerrendatzen diren legezko debekuen egoera batean ere, KSI Berritzaile+ 2026-2027 dirulaguntzen programari dagokionez (xxx zenbakiko EHAA; xxxx/xx/xx):

– Ez egotea laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

– Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskabiderik egin ez izana eta edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu ez izana; konkurtsoan deklaratu ez egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu); esku-hartze judizialaren mende ez egotea eta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta ez egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

– Administrazioarekin egindako kontratu baten suntsiarazpen irmorik eragin ez izana, kausaren batean errudun deklaratu dutelako.

– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean ez egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu publikodunen jokabide kodea eta interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguren bat izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia erkidegoko araudian ezarritako eran.

– Ez izatea egoitza fiskala arauz paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.

– Egunean egotea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

– Ez izatea dirulaguntzak jasotzea galarazten dion zehapen-ebazpen irmorik, halakorik ezartzen duen edozein legeren arabera. Zehazki, zehapen administratibo edo penalak izatea sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, eta zehapenean ezarritako aldia igaro gabe egotea.

– Estatuko araudiaren arabera, berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra bete gabe ez izatea, ez eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurriak ezartzeko betebeharra ere, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan (50 langiletik gorako enpresak).

– Ordezkatutako elkarte ez egotea Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku-kausen eraginpean.

– Ordezkatutako erakundea inskribatzeko administrazio-prozedura bertan behera ez egotea zigor-arloko zilegitasunik ezaren zantzuak egoteagatik, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, dagokion erregistroan inskribatzeko aukera dagoela ziurtatzen duen ebazpen judizial irmoa eman ez bada (elkarteei zuzendua. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.4 artikulua).

– Ez egin, bultzatu edo sustatu izana LGTBI-fobia, barne hartuta konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

– Ez zigortua egotea Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

– Desgaitasuna duten pertsonen alde lanpostuak gordetzeko lege ezarritako erreserba-kuota bete gabe ez izatea, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe egonik.

– Fundazioen kasuan, beren Estatutuak Euskadiko Fundazioen ekainaren 2ko 9/2016 Legean xedatutakora egokitu izana, eta egokitzea Euskadiko Fundazioen Erregistroan sartu izana (Euskadiko Fundazioen ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 1. xedapen iragankorra).

– Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa jaso ez izana, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

– Zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzea, lege ezarritakoaren arabera. (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduko 6.6 eta 8. artikuluen kasuetan).

– Eskatutako laguntza jarduera berberetarako aitortu edo ordaindutako beste batzuekin bateragarria izatea baimenduta egonik, gainfinantzaketa egoeran ez izatea, etorkizunean helburu bererako jaso ditzakeenak jakinarazteko betebeharraren kalterik gabe, laguntza likidatu arteko aldian. (Deialdiak beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna aurreikusten duenean).

– Aurreko hiru ekitaldietan jasotako minimis laguntzek ez gainditzea 300.000 euroko muga, laguntza hau eman aurreko hiru urteetan (muga hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen (EB) 2023/2831 Erregelamenduan ezarrita dago), ez eta gainerako erregelamenduetan minimis mekanismo horretarako berariaz ezarritako beste muga batzuk ere.

Betekizunak betetzeari eta helarazitako datuen zuzentasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak.

– Betetzen ditut indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.

– Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan dokumentu guztiak ere, eta neure gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den funtsezko datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, orduan ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horien berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; 69.4 artikulua).